

Otsailaren 21a, Ama-hizkuntzaren Nazioarteko Eguna


Euskara da Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiruren ama-hizkuntza

Ama-hizkuntzaren Nazioarteko Eguna dela eta, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren Gazteen Euskal Behatokitik Euskadiko gazteen ama-hizkuntzari edo lehen hizkuntzari buruzko datuak aurkeztuko ditugu. Haurrak 3 urte bete arte etxean, gurasoengandik zein etxean bizi diren beste seniderengandik, jasotzen duen hizkuntzari deitzen zaio ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza.

Aldiro egiten den azken Inkesta Soziolinguistikoa 2016an burutu zen. Horren datuen arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 18,7rentzat euskara izan da beren ama-hizkuntza bakarra eta beste % 10,8rentzat gaztelaniarekin batera. Guztira, 30 urtetik beherako gazteen % 29,5ek jaso zuten euskara etxean umetan.

Portzentaje horrek gora egin du azken urteetan eta 1986an % 21,7 izatetik 2016 % 29,5 izatera pasatu da.


Ama-hizkuntza euskara bakarrik edo gaztelaniarekin batera izan duten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Euskararen Adierazle Sistemaren (EAS) datuak oinarri hartuta

Gazteen eta Euskadiko biztanleria osoaren datuak seriearen hasieran eta bukaeran alderatzen baditugu, ikus dezakegu 1986an euskara ama-hizkuntza zuten gazteen portzentajea biztanleria osoari zegokiona baino txikiagoa zela, baina 2016an gazteen portzentajea biztanleria osoaren batez bestekotik gora dagoela.

Ama-hizkuntza euskara izan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta Euskadiko biztanleria osoaren ehunekoen bilakaera




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Euskararen Adierazle Sistemaren (EAS) datuak oinarri hartuta

2016an izandako emaitzak bakarrik kontuan hartuta, agerian geratzen da ez dagoela alderik gizon eta emakume gazteen artean, baina bai adin-taldearen artean eta are alde handiagoak bizi diren lurralde historikoei erreparatuz gero.

Adinean gora egin ahala jaitsi egiten da ama-hizkuntza euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) izan duten gazteen portzentajea. Euskara izan da 15 eta 19 urte bitartekoekin % 34,8ren ama-hizkuntza, 20 eta 24 urte bitartekoekin % 29,9rena eta 25 eta 29 urte bitartekoekin % 24,5ena.

Bestalde, aipatzekoa da lurralde historikoen arteko aldea. Gipuzkoan ia gazteen erdiek (% 48,3k) etxean euskara ikasi dute, Bizkaian % 22,0k eta Araban gutxiagok, % 13,0k, hain zuzen ere.

Ama-hizkuntza euskara izan duten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (2016)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Euskararen Adierazle Sistemaren (EAS) datuak oinarri hartuta

Otsailaren 21a Ama-hizkuntzaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen Unescok 1999an. Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna bultzatzea du helburu ama-hizkuntzaren nazioarteko eguna ezartzeak, hau da, munduko herri guztiek darabiltzaten hizkuntza guztiak babestea.